6967

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 3koa, Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearena, 2008ko ekainaren 3ko Aginduan (ekainaren 6ko EHAA) jasotako guztirako kopurua handitzeko dena. Agindu horren bidez, hain zuzen ere, hezkuntza premia bereziko ikasleak dituzten eta 2008-2009 ikasturterako hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxeetarako diru-laguntzak deitu ziren.

Aipatutako aginduan 8.782.212 euroko kopurua jasotzen da, diru-laguntza eskatzen duten itunpeko ikastetxeek hezkuntza-laguntzako espezialistak kontrata ditzaten.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta Balorazio Batzordea bildu ondorean (aipatu aginduaren 6. artikulua), zera ikusi da: behar bezala informaturik dauden eta nahitaez laguntza jaso behar duten eskabideek hasieran aurreikusitako aurrekontua gainditzen dute. Hortaz, agindu horretako 1.2 artikuluan zehaztutako aukera ikusita, hau

EBATZI DUT:

Aipatutako aginduaren 1. artikuluan kontsignatutako guztirako kopurua 516.579,86 eurotan handitzea; 206.631,76 euro 2008ko iraila/abenduko epeari dagozkio, eta 309.948,10 euro, berriz, 2009ko urtarrila/abuztuko epeari. Ondorioz, deialdia ebazteko 9.298.791,86 euroko diru-kopurua egongo da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 3a.

Administrazio eta Zerbitzu sailburuordea,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.

6967

RESOLUCIÓN de 3 de diciembre de 2008, del Viceconsejero de Administración y Servicios por la que se amplía el importe máximo recogido en la Orden de 3 de junio de 2008 (BOPV de 6 de junio) por la que se convocan ayudas para los centros docentes concertados que escolaricen alumnos o alumnas con necesidades educativas especiales y necesiten contratar Especialistas de Apoyo Educativo para el curso escolar 2008-2009.

En la Orden citada figura la cantidad de 8.782.212 euros, destinada a facilitar la contratación de personal especialista de apoyo educativo por los centros concertados solicitantes.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes y reunida la Comisión de Valoración correspondiente (artículo 6 de la precitada Orden), se halla que las peticiones debidamente informadas y cuya concesión es necesaria, superan en su cuantía económica el tope inicialmente establecido, por lo que, a tenor de la posibilidad recogida en el Artículo 1.2 de la Orden,

RESUELVO:

Ampliar el importe global consignado en el artículo 1 de la Orden referenciada en la cantidad de 516.579,86 euros, correspondiendo 206.631,76 euros al periodo septiembre/diciembre 2008 y 309.948,10 euros al periodo enero/agosto 2009. En consecuencia se dispone de un total de 9.298.791,86 euros, para la resolución de la convocatoria,

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2008.

El Viceconsejero de Administración y Servicios,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.